







Esne Bidearen
lau mapa berri:
abiadura erradiala,
izar arteko hautsa,
Eguzkiarekiko
mugimendua eta
mapa kimikoa,
hurrenez hurren.

ARG.: © ESA/Gaia/DPAC;
CC BY-SA 3.0 IGO.

Esne Bidearen mapa osatuena eta xeheena egin du Gaiak

Egoitz Etxebeste Aduriz · Elhuyar Zientzia

Europako Espazio Agentziaren [Gaia](#) misioak Esne Bideari buruzko datu-andana berria argitaratu du, datu horiek aztertzen dituzten [lan zientifiko](#)en bildumarekin batera. Milioika izarren osaera kimikoa eta hiru dimentsioko mugimendua jaso dituzte, baita izarretako seismoak, mugimendu asimetrikoak eta beste hainbat datu harrigarri ere. [Datu guztiak eskuragarri jarri dituzte](#).

2014 eta 2017 artean jasotako datuak eta harekin egindako azterketak dira aurkeztu dituztenak. Ia bi mila milioi izarren informazio berria eta hobetua bildu dute: besteak beste, konposizio kimikoak, tenperaturak, koloreak, masak, adinak eta zer abiaduratan ari diren gugana hurbiltzen edo gugandik urruntzen (abiadura erradiala).

Informazio berriaren zati handi bat espektroskopia bidez lortu dute, izarren argia koloretan banatuz. Horrek izarren osaera kimikoari buruzko informazioa ematen du, eta, informazio horretatik abiatuta, izarren jatorria, adina, tenperatura eta abar jakin daitezke.

Hala, Esne Bidearen historiari eta eboluzioari buruzko informazioa jasotzen duen mapa kimiko osatu bat lortu dute, non izarren generazio desberdinak identifikatu dituzten. Ikusi dute galaxiako izar batzuk jatorrizko materialez osatuta daudela; eta beste batzuk, Eguzkia kasu, aurreko beste izar-belaunaldien materialarekin aberastuta daudela.

Esne Bidean dibertsitate handia dagoela berretsi dute. Eta, konposizio kimikoan oinarrituta, ikusi ahal izan dute badirela izar batzuk beste galaxia

batzuetatik etorriak. Izan ere, Esne Bideak kanpoko beste galaxia batzuk irentsi izan dituela ere ikusi dute.

“Aurkikuntzarik harrigarrienetako bat izarretako seismoak izan dira”

Aurkikuntzarik harrigarrienetako bat izarretako seismoak izan dira. Izarren forma aldatu dezaketen tsunamien gisako eskala handiko bibrazioak detektatu dituzte milaka izarretan, baita egungo teorien arabera horrelakorik espero ezin zitekeen izar batzuetan ere. Izarrak ikertzeko bide berri bat izan daitezke seismo horiek, informazio asko ematen baitute; batez ere, izarren barne-funtzionamenduari buruzkoa.

Horrez gain, 800.000 sistema bitar baino gehiagoren masa eta bilakaera ere jaso dituzte. Baita 156.000 asteroideren eta Esne Bidetik kanpo dauden beste milioika galaxia eta quasarren informazioa ere. ●